

DIRU-SARRERAK:

Dakigunez diru-sarrerak bi motatakoak izan daiteke eta gure aplikazioa biak eskaintzen ditu; alde batetik ordainketa bakarrekoa dugu, bere izenak dioen bezala, bezeroek urtean behin ordainduko dute kuota (99,99€) eta urte osoan zehar aplikazioaren atal guztiak izango dituzte haien eskura. Beste aldetik ordainketa errepikaria dugu, hau da, bezeroak hilero ordaintzeko aukera izango du (9,99€) eta hilabete batean ordainduko ez balu, ez lituzkete izango atal guztiak eskuragarri. Ordainketa bakarreko aukera, ordainketa errepikaria baino merkeagoa da (urte bat kontuan hartzen badugu). Bestalde, bezeroek hilabetero ordaintzea normalagoa izango litzateke. Bestalde, apustuen atalean, Paypal bidez eta kreditu-txartelekin egin ditzakezu ordainketak. Apustuaren arabera, diru gehiago edo gutxiago irabaziko dugu.

Aurretik aipatu dugun bezala gure proiektuari hasiera emateko inbertsio handia beharko du. Hasierako inbertsioa 25.000€-koa izango da eta diru hori bazkide bakoitzaren aurrezkietatik lortuko da, 5.000€ inbertsore bakoitzeko. Diru horren zeregin nagusia izango da aplikazioa sortzea eta jendearen artean zabaltzea

Hasierako inbertsioa egin eta gero, diru-sarrera nagusiak hiru izango dira:

- Udaletxeak:
- Sarrerak
- Kirol taldeak edo kirol erakundeak
- Enpresa pribatuak

Diru-sarrerak

Udaletxeen ekarpenei dagokienez haiek izango dira gure diru-sarreraren %30. Gure aplikazioa, kirol ekitaldiak non eta noiz ospatzen diren jakinarazten du eta beraz, udaletxeek aplikazioa erosiko balute astean beraien herrian ospatzen diren ekitaldiez jakinaraziko ligukete. Informazio hori gure aplikaziora igoko genuke, bezero guztiak horren berri izan dezaten eta herriak horretaz baliatuz, ezagutzera emago litzateke. (Ekitaldiak ez ezik kirolareki zerikusia duten edozein hizketaldi izan daiteke ere)

Horretaz aparte, kirol taldeak eta erakundeak, gure diru-sarreraren %30 (gutxi gorabeherakoa) izango lirateke. Hainbat kirol haien orrialde propio dute eta beraz, haiei gure aplikazio ez zaie interesatzen (bizkaiko futbolari dagokionez, FVF/BFF). Bestalde, beste hainbat kirolek ez dute internet bidezko web orrialde bat eta beraz, ez dira oso ikusiak izaten. Gure aplikazio haientzat zuzenduta dago batez ere, izan ere, gure zerbitzuekin kirol horiek eta zeharka hainbat kirol talde onurak jasoko luketelako.

Adibidez: Euskal herriko xake erakundearekin hitz egitean akordio batera heltzen bagara eta gure zerbitzuak onartzean, gure aplikazioaren barruan haien asteko ekitaldiak aditzera ematen ditugu. Gainera, xake-taldeekin hitz egingo genuke, gure proiektuaren berri egon daitezen eta aplikazioa saltzen saiatuko ginatekeen.

Hortaz aparte enpresa pribatuak aurkitzen ditugu. Haien gure diru sarreren %10 dira. Erabiltzaile bakoitza gure aplikazioa sartzean “cookieak” onaraziko dituzte eta beraz, informazio hori bilduko dugu eta hori marketin enpresei salduko diegu, bakoitzari gustuko duen produktuen iragarkiak sar diezaioten.

Prezioei dagokionez, prezio finkoak izango dira, hau da, beti prezio bera izango dute (9,99€/hilero edo 99,99€/urtero). Bestalde, subkripzio egin eta gero erabiltzaileak onurak izango dituzte. Gure enpresak erabileragatiko sariak ematen dizkie erabiltzaileei, izan ere, zenbat eta kirol gehiagora joan orduan eta diru gehiago aurreztu dezakete.

Adibidez: Subskribitu diren bi pertsonen adibidea jarriko dugu. Batek, hil batean 10 eskubaloitara joan da. Sarrera bakoitza 5€ko balioa zuten eta %25 aplikatuz, 1,25€ aurreztu du pertsona horrek (partidu bakoitzeko), hilearen amaieran 12,50€. Beraz, aurreztutako diruarekin, hurrengo hilabetea ordaindu lezake edo bestelako gauza batean gastatu. Bestalde, izenpetuta dagoen beste batek 3 esgrima ekitaldira joan da, sarrera 6€ ziren, eta beraz 1,50€ aurreztu ditu, hilabetean 4,50€. Beraz, berarentzat aplikazioa ez da errentagarria izan, kirol ekitaldi gutxira joan baita.

Irabazien azken % 30 helduentzako kirol-apustuen atala dagokio.

